

ZARATARIK EZ, ESKERRIK ASKO



© Xabier Galarreta

(Oharra: “boteoi” = “botellón”)

1.

Zarataz aspertuta
gara herritarrak
urteko egun guztietan
zarata ez da falta.
Ta “ginda” jarri nahian
boteoia dela-eta
belarri gaixo denak
lehertuko dira orain.
A ze ekologistak
gau-txori aldra hau!

2.

Jai-egun guztietan
hemendik aurrera
debekatuko dira
hil-zori guztiak,
eta modu berean
inor gaixotzea
(eztugu eragotzi nahi
inor boteoi aldean).
Itzaliko ditugu
despertadoreak!

3.

Gure kalea omen da
gutxi batzuen
ta kexatzen bazara
faxista bat zara.
Zenbaitzuen parrandak

denok ordaindu behar
gure pazientzia handia
aproban jarrita.
Dantzaleku bihurtzea
nahi dute hiria!

4

Aldarri-kontuetan
trebeak ta iaioak;
elkartasuna ordea
utzi dute fuera.
Pentsamendu bakarra
daukate gogoan:
“Jaia bizi ni legez,
bestela izorrai”.
Hau da demokrazia
tabernetakoa!

5

Haitzur ederra hartuta
dezibeliok nonahi
txiza-oka oparoak
utzi guri errentan;
erraz ahaz ez ditzagun
bizitako une onak
graffitiak pintatuz
amaitu faena.
Utzi ere guretzat
garbiketa-lana!

6

Alde hortatik zuek lasai
hiria zuena da
txakur gonbidatuak
besterik ez gara;
aspertzen bazarete
etor gure etxera
guk alde egingo dugu
bai ziztu bizian.
Sentituko zarete
kalean bezela!